

Erljioa Nafarroako Foruetan (III)

La convivencia de etnias, clases sociales, culturas y religiones distintas ha conocido altibajos y momentos críticos en el Occidente cristiano. Recuérdense los desvalidos sociales, los esclavos, los disidentes religiosos, los judíos y moros o moriscos. No puede menos de hacerse un repaso a ese pasado doloroso a la luz del Evangelio. Los Fueros navarros merecen una lectura al respecto.

Testamentu Berriak, bere Ebanjelio eta Gutunekin, gizakiarekiko eta gizartearekiko ikusmolde propioa erakutsi zigin. Alde horretatik, Biblia kristaua errukitsua da ahularekin, eta herri eta kulturetara begira unibertetsala izan nahi du. Hori da Kristautasunak maite izan duen xede nagusi bat. Baina asmo onek ere sarritan estropezu egin ohi dute gizarteko bizitzan.

Herritar arruntekin

Gizarterik ederreanean ere pobreak egon ohi dira, gaixoak, zaharrak, ezinduek, umezurtzak, alargunak, eskaleak, eta han-hemen alderraiak, alprojak, gaizkileak, edo gizarteko burubide onartuetatik kanpo dabiltzanak.

Eta herritar kristauen ondoan bestelakoak daude, kasu honetan kristau ez direnak edo ortodoxia utzitako ernegatuak, ohiko hautapenetatik albotara geratzen zirenak. Nafarroako Foruek guztien arteko bizikidetzara arautu behar izan zuten, arautu eta gobernatu.

Foruaren arabera, gaizkileek edo halakotzat hartuek elizetan babesa bilatzeko eskubidea zuten. Kasuak banan-banan begiratuta, eliz epaileek edo ikusi behar zuten hone-

lakoetan zer egin, eskumen zibilera pasatu ala ez. Babes horren gobernu onerako arauak onartu zituen inoiz nafar Legeak (1717).

Eguneroko bekatuetara gatozela, Jainko eta Santuen kontrako biraoak eta sinesmenarekiko erneguak zigorturik zeuden. Lizarrako Ordenantzak zera zioen: *"[ninguno] sea osado de blasfemar o renegar de nuestro señor Dios o de Santa María su madre, o de sus santos, so pena de estar diez días en la cárcel e de le enclavar la lengua en la picota, e so la pena puesta por los estados de este Reyno de Navarra"*(1536).

Tabernetako gauetzko jokoak ez zeuden ongi ikusiak; horregatik, Ordenantza berak zera gehitu zuen: *"ninguno sea osado de jugar en las tabernas de noche a ningún juego ni mientras los oficios divinos se celebraren de día, so pena de estar tres días en la cárcel"*. Dena den, ikusi egin behar gero ordenantza horiek nola betetzen ziren.

Pobreentzako limosnen eskea eta hauen banaketa igandero egin behar zen, eta herriko Bikarioa eta zenbait ordezkari hautatu izaten ziren horren arduradun. Limosnak ez ziren nornahirentzat, baizik eta aurreikusitako "benetako behartsu, gaixo, ezindu, edo ezin ibili edo ezin lan egin zuten zaharrentzat"



Tuterako Judutegia

(1553, 1569). Oro har, Ordena erlijiosoentzako eskeak ongi zainduak izan ziren, herritarrentzat zama astunegia izan ez zitezen. Arantzazurako eskea baimenduta zegoen frantziskotarren Nafarroako komentu-barrutietan (1629).

Aparteko herritarrekin

Gutxiengo gaitzetsien artean ageri zaizkigu ijitoak: *"Ijitoak Erreinuaz ez daitezela onartuak izan, eta haien aurkako zigorrak"*, dio Lege baten izenburuak (1549), eta Legeko pasarte batek dio egiten omen zituzten lapurreta eta salmentetako engainuengatik zela debekua. Zigor zehatzak jarri zitzaizkien Erreinuaz sartzen ziren ijitoei (1628, 1678).

Erreinuako judu eta mairuen historia batez ere Erdi Arokoa da, Aro Modernoan bestelako aurpegia izan zuena, hala ere Foru modernoetan ere begiratu zitzaion horri. Lehenik, Erdi Aroan judu eta mairuak estatus sozial eta juridiko aitortua izan zuten, eta horrela, zinez Erreinu eta gizarte nafarreko parte ziren, beren eskubide eta erantzukizun propioak zituztela; horretan, esklabo edo herekikoen gaineratik zeuden.

Erregeren eta judu nahiz mairuen artean sinatutako hitzarmenen arabera finkatuta zeuden Koroaren eta herritar haien arteko legezko harremanak: Erregeren mendeko eta babesekoak ziren; beren ohitura, erlijio eta

epaile onartuak zituzten, eta erantzukizun zibil eta fiskalak. Erreinuako ekonomiako parte ziren, gainera, juduak artisautza, ofizio lanbideak eta merkataritza nahiago zituztela, eta mairuak batez ere nekazaritza bizi zirela. Erdi Aroak aurrera egin ahala, XIV-XV. mendeetan jatorrizko egoera babestu hark txarretara egin zuen, ordea.

Gutxienez Nafarroako 26 herritan zeuden judu-auzoak; Tudara, Zangoza edo Lizarra izan ziren handienetakoak. Mendetan elkarbizitza baketsuan bizi ondoren, han-hemen eta aldika lehertu ziren juduen kontrako kristauen erasoak (Lizarra, 1328), baina aldarre hobek ere egon ziren, nonbait, XV. mendeko azken urteetara arte, 1.800 judu gaztelau errefuxiatu baitziren Nafarroan 1492n, urte gutxi geroago erbesteratuak izan ziren arte (1498). Nafarroako mairuek ere azken bera izan zuten 1516an, bataioaren eta atzerriaren artean aukeratzera bortxatuta.

Eta historia hau ez zen horretan amaitu. Judu-mairu ez kristautuak erbestera joan eta gero ere, setakeria hark aurrera jarraitu zuen judu-mairu bataiatuen aurka. *"Kristau berri"* bezala izendatuak izan ziren hauek, jende sumagarri nahasia alegia. Herritar bikainen odol garbiaren ideia eta baldintza soziala Euskal Herriko Foruetara ere bete-bete heldu ziren, bada. Eta ez Ebanjelioak halakorik eskatzen zuelako.

Joseba Intxausti